



GOMENDIOAK: HAIZE ZAKARRA



Gomendatzen dugu Euskalmet web-gunearen bidez <http://www.euskalmet.euskadi.eus> eta Twitter bidez (@Euskalmet eta @112_SOSDeiak) eguneratzen diren iragarpenak jarraitzea.

Hona hemen Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzaren aholkuak haize zakarra dabilenerako direnerako, ondorio txarrik ez egoteko, edo ahalik eta gehien murrizteko:

HERRITARRENTZAKO GOMENDIOAK:

Prebentzioko neurriak:

- Itxi ateak, eta finkatu leihoak eta olanak.
- Kendu lorontziak eta kalera eror daitezkeen gauza guztiak.

Kanpoan bazaude:

- Behar-beharrezkoa ez bada, ez joan mendira adierazitako ordu horietan, eta, joan behar baduzu, babes-neurri egokiak hartu.
- Urrundu erlaitzetatik, hormetatik, zuhaitzetatik edo publizitate-hesietatik, eta kontu handiz ibili eraikitzen ari diren edo egoera txarrean dauden eraikinen aurrean bazaude.
- Aldamioak, garabiak eta obrako bestelako elementuak finkatu.

Bidaiaren bat egingo baduzu:

- Ahal bada, ez egin errepideko joan-etorriak, eta, edonola ere, aurrez neurriak hartu.
- Informa zaitetz joango zaren edo igaroko zaren aldeko meteorologia-baldintzei buruz.

Itsasaldean bazaude:

- Urrundu zaitetz haize gogorrek eragin ditzaketen olatuen eta mareen eragina jasan dezaketen lekuetatik.
- Ez erabili itsasontzirik, eta berrikusi horien amarrak. Ez egin uretako kirolak.

Larrialdietan, deitu **112** zenbakira.

UDALENTZAKO GOMENDIOAK:

Prebentzioko neurriak:

- Udaleko larrialdiko planeko ekintza-planean agertzen diren langileei abisu eman. Bestela, halako egoeretan lagungarri izan daitezkeen uda-zerbitzuak aktibatu (udaltzainak, boluntario-taldeak, obra eta zerbitzuetako langileak, ur eta estolderietako zerbitzuak eta abar).
- Erreparatu ondo udalerrian jarrita dauden aldami, garabi eta obrako beste elementuei, denak ondo tinkatuta daudela ziurtatzeko.
- Tinkatu ondo hiri-altzariak, zabor-ontziak edo istripua eragin dezakeen beste edozer gauza.
- Erreparatu instalazio ez egonkor, eramangarri edo desmuntagarri (adibidez, karpak), eta tinkatu ondo.
- Ziurtatu ez dagoela inor herrian kanpin egiten leku arriskutsuetan, eta aztertu herriko kanpin-instalazio guztiak.
- Ez ahaztu Udal Larrialdietako Sareko TETRA emisorea hor daukazula, SOS Deiak Larrialdiak Koordinatzeko Zentroarekin kontaktatzeko.

Larrialdietan hartu beharreko neurriak:

- Errepide edo paseoetan, bereziki, kostaldekoetan, zati arriskutsuak zaindu eta kontrolatu.
- Jakinarazi herritarrei haize zakarren arriskua dagoela, eta azaldu zer neurri hartu behar diren arriskua prebenitzeko.

Larrialdietan, deitu **112** zenbakira.

LARRIALDIETAKO ZERBITZUENTZAKO GOMENDIOAK:

- Kontingentzia-planean egoera hauetarako zehaztutako langileei abisu eman. Bestela, egoki iruditzen zaizkizuen laguntzaileak aktibatu.
- Moldatu eskura dauden bitartekoak, dena delako egoerari ahalik eta ondoen erantzuteko.
- Jarraipeneko mahaia edo krisi-mahaia antolatuz gero, garaiz jakinaraziko zaizue, edo lehendik aurreikusita zeudenetara dei egingo zaizue.